

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

V. PLANGINTZALDIA

EAEko HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEETAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANETARAKO IRIZPIDE OROKORRAK

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

2013ko uztailaren 24an



Sarrera

1. V. plangintzaldiaren aurrekariak

1.1. IV. plangintzaldiko ebaluazioaren gaineko zenbait datu esanguratsu

1.2. IV. plangintzaldiaren ebaluazioko proposamenak etorkizunera begira

2. Euskararen erabilera normalizatzeko planen oinarrizko edukia eta legezko testuingurua

3. V. plangintzaldirako planetarako irizpide orokorrak

3.1. Eragin-eremua eta epea

3.2. Helmuga: euskara ere herri administrazioetako jarduneko ohiko lan hizkuntza

3.3. Euskararen erabilera normalizatzeko planen parte-hartzaileak

3.4. Hizkuntza eskakizunen sistemaren garapena.

3.5. Irizpide orokorrak: herri administrazioak, oro har, ESEPen ezarritakoaren arabera

1. Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea

2. Euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea

3. Langileen euskara gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea

4. Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak finkatzea

5. Administrazioen arteko elkarlana areagotzea

6. Kanpoko komunikazioan euskararen erabilera areagotzea

3.6. Irizpide orokorrak: gune geografiko euskaldunenak

Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea.



V. PLANGINTZALDIA

EAEko HERRI ADMINISTRAZIOETAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANETARAKO IRIZPIDE OROKORRAK

Sarrera

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren egitekoak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren apirilaren 9ko 193/2013 egitura dekretuan daude jasota. Egiteko horien artean, honakoa ageri da 21.1.a), f), g), j) artikuluan:

«a) *Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-politika artikulatzea eta haren jarraipena egitea euskararen erabilera normalizatzeari dagokionez, eta Eusko Jaurlaritzak emanda Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek bete beharko dituzten arlo horretako jardun-irizpideak garatzea eta ezartzea.*

»f) *Euskal Autonomia Erkidego osorako plangintza orokorra prestatzea eta jarduera bateratuak gauzatzeko planak egitea, Jaurlaritzak onar ditzan.*

»g) *Hizkuntza-politikan eskumena duten botere publikoak lankidetzan aritzeko neurriak dinamizatzea eta bultzatzea, horretarako behar diren ekimen guztiak sustatuta, eta erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa areagotuko duen beste edozein formula ikertuta.*

»j) *Hizkuntza-eskakizunak zehazteko eta eskakizun horiek aplikatzeko proposamena egitea, Euskal Funtzio Publikoaren Legean ezarritako ondorioetarako. Gainera, herri administrazioekin batera arituko da irizpide horietara egokitzeko planak lantzen eta ezarritako helburuen betetze-maila ebaluatzen. Horrek guztiak ez ditu eragotziko administrazio horietako bakoitzak dituen eskumen eta eskurantzak, ezta, hala dagokionean, Jaurlaritzako sailek dituztenak ere.»*

Eginbehar hori betetzera dator EAEko Herri Administrazioetako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planetarako Irizpide Orokorrak deituriko dokumentu hau. Herri administrazio bakoitzaren aukerakoa da, jakina, irizpide hauei jarraitu edo ez erabakitzea, eta jarraitzekotan ere zein neurritan eta nola egin jarraipena erabakitzea. Tokian tokiko hizkuntza errealitatearen arabera mamitu behar diren irizpideak dira, malgutasunez eta lege-arauak errespetatuz betiere.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak irizpideok finkatzerakoan kontuan izan ditu, beste zenbaiten artean baina oso bereziki, ondorengook:



- Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- IV. Plangintzaldiko Herri Administrazioetako Euskararen Erabilera Planen ebaluazioa.
- Hizkuntza eskakizunen gaineko azterketa kualitatiboa, Siadecok egina eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Eusko Legebiltzarrean 2013ko ekainaren 3an aurkeztutakoa.
- Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) 2. ataleko 4. (administrazioa) eta 5. (gune geografiko euskaldunenak) azpiatalak.

Are gehiago, oraindik: ESEPen jasotako irizpideak bere horretan jasotzen dira dokumentu honetan, osasun zerbitzuei, Estatuaren administrazio periferikoari eta Justizia Administrazioari dagozkienak izan ezik, hauek ez baitira apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren eragin-eremukoak.

Hori guztia, jakina, azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen Legeko bigarren tituluko lehen kapituluan xedatua oinarritzat hartuta.



1. V. plangintzaldiaren aurrekariak

IV. plangintzaldiaren (2008-2012) amaierako ebaluazioak ematen duen informazioak osatzen du, ezinbestez, V. plangintzaldiaren (2013-2017) abiapuntuetariko bat, nahiz eta ez izan bakarra. Horregatik, IV. plangintzaldiaren amaierako ebaluazioan plangintzaldiak berak eman duena nahiz V. plangintzaldirako proposamenen gainean ageri diren datu eta proposamen esanguratsuenak jaso ditugu jarraian.

1.1- IV. plangintzaldiko ebaluazioaren gaineko zenbait datu esanguratsu

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak IV. plangintzaldiaren gaineko ebaluazio txostena egin du 2013ko maiatzean. Hasiera beretik esan behar da, aldeak daudela emaitzetan erakundeen artean. Hemen jasotzen direnak batez besteko datuak dira.

Txosten horretan, alde batetik, datuen azterketa kuantitatiboa biltzen da, erabilera planetan aurreikusitako hamabi esparruei erreparatuta; eta, bestetik, emaitzen balorazio kualitatiboa jasotzen da.

Datu kuantitatiboak dagokienez, hona hemen esanguratsuenen laburpena, esparruz esparru:

- **Erabilera planak:** erantzun dutenen % 81ek indarrean du euskararen erabilera normalizatzeko plana. Beste % 19k ez du oraindik onartu. Horrek esan nahi du 86/1997 Dekretuaren eraginpeko EAEko erakundeen % 75ek baduela bere euskararen erabilera plana.
- **Hizkuntza eskakizunen betetze maila herri administrazioetan:** lanpostuak guztira 35 837 dira. Lanpostu horien % 54.5ek (19 523 lanpostuk) du derrigortasun data ezarria. Horietatik, 18 633 lanpostu dira beteta daudenak (titularrekin edo lanpostuaren jabe izan gabe lanpostuan diharduten okupatzaileekin). Lanpostuen titularrak nahiz okupatzaileak kontuan hartzen baditugu, % 82.47k (15 366 langile) egiaztatu du dagokion hizkuntza eskakizuna, eta baxuagoren bat egiaztatu du % 7k. Ez du ezer egiaztatu % 5.5ek, eta beste % 5 salbuetsita dago. Gainera, derrigortasun datarik ez duten lanpostuen kasuan % 23.5ek egiaztatu du dagokion hizkuntza eskakizuna eta % 12.3k dagokiona baino baxuagoren bat. Beraz, gaur egun 86/1997 Dekretuaren eraginpeko herri administrazioetan, 18 210 langilek dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatu dute, eta 2800ek dagokiena baino baxuagoren bat. Ondorioa bistan da: IV. plangintzaldiko ebaluazio txostenean jasotako datuen arabera, 21 010 langile dira (% 58.6) herri administrazio hauetan beren lan eginkizunak osorik edo partez euskaraz bete ditzaketanak.



- **Erakunde-ordezkarien euskararen ezagutza:** erakunde-ordezkarien (guztira, 3427) bi heren baino gehiago euskara ulertzeko eta euskaraz hitz egiteko gai da. Erakunde-ordezkarien erdiak baino gehiagok (% 56.4) dauka euskaraz lan egiteko gaitasuna.
- **Ahozko komunikazioa:** erakundeek emandako datuen arabera, leihatilan harrera egiterakoan, euskara harremanen % 71n erabiltzen da eta elkarrizketara pasatzerakoan, berriz, ia % 50ean. Eta, ahozko barne harremanetan, lan bileretan izan ezik, beste harreman mota guztietan erditik gora euskaraz egiten dela adierazi dute erakundeek.
- **Idatzizko komunikazioa:** herritarren % 31k erabiltzen du euskara administraziora idatziz zuzentzen denean, eta, gaztelania, aldiz, % 61 inguruk. Administrazioen kasuan elebitasuna da nagusi: % 63.

Herritarrei igorritako komunikazioetan erabiltzen da euskara gehien, euskara eta idazki elebidunak batuz gero.
- **Langileen prestakuntza orokorra:** eman diren ikastaroen % 65 gaztelaniaz izan dira.
- **Tresna eta aplikazio informatikoak:** 3988 berariazko aplikazio identifikatu dira, eta horietatik erdia inguru daude euskaraz erabilgarri. Erabilerari dagokionez, berriz, erabilgarri daudenen erdira ez da iristen: % 34.8.
- **Internet eta intranet sareak:** edukien % 82 inguru euskaraz erabilgarri dago.
- **Argitalpenak:** jasotako datuen arabera, argitalpenen erdiak baino gehiago (% 61.6) gaztelaniaz egiten dira.
- **Hizkuntza paisaia:** bai errotulazio eta noizbehinkako oharretan, bai paper-gauzetan ere euskarak oso presentzia esanguratsua du. Bide seinaleen kasuan, % 90etik gorako kasuetan euskararen presentzia bermatua dagoela esan daiteke.
- **Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak:** elebitasuna nagusitzen da, eta euskara hutsaren presentzia oso esanguratsua da, batez ere megafonia bidez hedatzen diren mezuetan.
- **Hizkuntza irizpideak diru-laguntzetan eta kontratazioetan:** hizkuntza irizpideak % 50 inguruan arautzen dira. Aplikazio maila araututakoaren % 60 ingurukoa da.



- **Kontratazio administratiboak:** kontratazio administratiboak arautzeko garaian, % 49an arautzen dira hizkuntza irizpideak. Behin arautu ostean, % 60an izaten dira kontuan kontratua aplikatzerakoan.

Bestalde, IV. plangintzaldiko ebaluazio txostenak ondorio eta azterketa kualitatiboa ere egiten du. Hona, labur, txostenak etorkizunean hobetu beharreko legez jasotzen dituen ondorio azpimarragarrienak, sei ataletan banatuta:

- **Erabilera planen kudeaketa**
 - Zeharkakotasun falta: euskara planak Euskara Zerbitzuaren barruan geratzen dira.
 - Erabilera planen jarraipenik eza.
 - Herri administrazio batzuek ez dute erabilera plana onartuta.
- **Euskararen ezagutza**
 - Estatu mailako administrazioetatik Euskal Herri Administrazioa egindako langileen transferentziako hizkuntza baldintzak.
 - Ardura handiko hainbat lanpostudunek euskararen aldetik behar besteko mailarik ez izatea.
 - Erabilerarik ezak ezagutza murrizten du.
- **Euskararen erabilera**

Zerbitzu hizkuntza

- Ahozkoa: 1 eta 2. tipologietako udaletan: esaten da langile euskaldun gutxi egoteagatik ez dagoela bermatuta euskara zerbitzu hizkuntza gisa.
- Idatzizkoa: 3 eta 4. tipologietako udaletan: esaten da hizkuntza eskakizuna egiaztatu barik duten langileak egoteak zaildu egiten dituela idatzizko harremanak.

Lan hizkuntza

- Ahozkoa: langileen joera gaztelaniaz egiteko.
- Idatzizkoa: hainbat tresna eta aplikazio informatiko gaztelania hutsez daude.



Kanpo irudia

- Hizkuntza paisaia oraindik bermatu barik dago gune erdaldunenetako zenbait administrazio eta erakundetean.
- Gabezia berezia dago behin-behineko iragarkietan.
- Web orrietako eduki guztiak ez daude euskaraz, batez ere, 1 eta 2. tipologietako udaletan.

- **Hizkuntza irizpideak**

- Hainbat erakundek oraindik ez dute erabaki hizkuntza irizpiderik.
- Irizpideak ezarrita egonda ere, ahuleziak agertzen dituzte:
 - Ez dira ondo komunikatu erakundeetan.
 - Batzuetan ez da betetze mailaren jarraipenik egiten.
 - Ez dago betearazteko prozedurarik.
 - Betetze maila behar bestekoa ez denean, ez dago neurri zuzentzailerik.
 - Euskara Zerbitzura bakarrik biltzen da ardura.

- **Sentsibilizazioa eta parte hartzea**

- Euskara planak ez die langile guztiei eragiten.
- Hizkuntza ohiturak eta pertzepzioak.

- **Lidergoa**

- Zeharkakotasuna ez da lortu, erakunde-arduradunen inplikazioa behar adinakoa ez izateagatik, besteak beste.
- HPSren gidaritzaren indartu beharra dago.



1.2- IV. plangintzaldiaren ebaluazioko proposamenak etorkizunera begira

Informazio kualitatiboa aztertzeko, lantaldeetako hausnarketa bideratu da euskara teknikari, erakunde-ordezkarari eta erabilera planetako bestelako langileen artean. Eta talde horietan landu da, halaber, V. plangintzaldirako lan ildoen proposamena.

Lan ildoak egituratzeko, ondorioetan azaldutako atalei jarraitu zaie. Hona, laburtuta, nabarmenenak:

- **Erabilera planen kudeaketa**
 - Euskara plana erakundetzea eta sail guztietara zabaltzea.
 - Zertifikazio sistema egokia ezartzea, jarraipena modu fidagarrian egin ahal izan eta, emaitzen arabera, aitortzea egiteko.
 - 2013. urtean erakunde guztiek euskara plana onartzea.
- **Euskararen ezagutza**
 - Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua aztertu eta, beharrezkoa denean, egokitzapenak egitea.
 - Estatuko Administrazioarengandik transferentziak hartzean derrigortasun datak leku giltzarrietan ezartzea.
 - Ardura handiko langileei berariazko ikastaroak ematea, lanpostuaren eginkizunen arabera.
- **- Euskararen erabilera**

Zerbitzu hizkuntza

- Ahozkoa: administrazioak proaktiboa izan behar du, herritarren eskaerari itxaron barik: langile euskaldunak identifikatzeko sistemak ezartzea.

Lan hizkuntza

- Ahozkoa: euskaraz jarduteko egoerarik onena duten atalak eta unitateak identifikatzea: arnaguneetan proiektu pilotuak abian jartzea.
- Idatzizkoa: baliabideak euskaraz eta langileen eskura jartzea; aplikazioak instalatzerakoan, hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten lanpostudunei euskarazko bertsioa lehenestea, eta horiek erabiltzeko prestakuntza eskaintzea.



Kanpo irudia

- Hizkuntza paisaia elebiduna, gutxienez, bermatzea. Herri administrazio arduradunek berrikuspen lana egitea.
- Web orri guztiak euskaraz ere egotea bermatzea, eta, egokiera denean, euskarazko bertsioa lehenestea edo, gutxienez, aukera berdinetan eskaintzea.
- **Hizkuntza irizpideak**
 - Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak erabakitzea, erakunde bakoitzak V. plangintzaldirako ezarritako helburuen arabera.
 - Hizkuntza irizpideak betetzeko neurriak aurreikusi eta hartzea: komunikazio egokia langileen artean, jarraipena egitea, betearazteko prozedurak finkatzea, neurri zuzentzaileak hartzea.
- **Sentsibilizazioa eta parte hartzea**
 - Erabilera planaren helburuak erakunde bakoitzaren ohiko jardunean txertatzea; erabilera planaren batzorde sustatzailea(k) sortu eta erabilera planak langile guztiei eragitea.
 - Komunikazio plana diseinatu eta burutzea, erakundeko langile guztiei eragiteko, bai eta herritarrei ere.
- **Lidergoa**
 - Lidergo partekatua.
 - HPSren gidaritza indartzea.
 - Erakundeen arteko sareak eratzea: HAKOBA (Herri Administrazioen arteko Koordinaziorako Batzordea) erakundetu beharko litzateke. ELEBIDE indartu eta haren eragina agerraraztea.



2. Euskararen erabilera normalizatzeko planen oinarrizko edukia eta legezko testuingurua

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana da herri administrazio bakoitzak bere jardunean burutuko duen hizkuntza politikaren nondik norakoak —helburuak, ekintzak, bitartekoak, epeak— eta jarraibideak jasotzen dituen dokumentua. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren arabera, “entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko du” (4. artikulua), eta “bost urteko iraupena izango duten plangintzaldiak ezarriko dira” (5. art.). 2013-2017ko bost urtealdirako planak onartu behar dira aurrean. Aipatu planak indarrean diren lege-arauei —bereziki apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena— jarraiki diseinatu, onartu eta aplikatu behar dira, eta, besteak beste eta gutxienez, ondorengo zehaztapenok jasoko dituzte:

1. Herri administrazio bakoitzaren gaur eguneko hizkuntza egoera, besteak beste honakook: lanpostuen zerrendan hizkuntza eskakizunen gainean jasotakoa, derrigortasun indizea, euskararen erabilerari buruzko argibideak eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren xedapenetara egokitzeko hartu eta indarrean dauden neurriak.

2. Hala dagokionean, hizkuntza eskakizunen eta derrigortasun daten aldaketak, eta derrigortasun indize berrira egokitzeko hartu asmo diren neurriak, halakoen beharra baldin bada, administrazio barruko jardunbidea euskaraz egin ahal izatea bermatzeko.

3. Euskara zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza izateko neurriak, besteak beste kontuan hartuz apirilaren 15eko 86/997 Dekretuaren hirugarren kapituluaren xedaturikoa nahiz herri administrazio bakoitzak V. plangintzaldirako jarritako helburuak.

4. Euskara lan hizkuntza gisa erabilia izango den funtzioen zehaztapena, lanpostuz lanpostu.

5. Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak entitatearen barne nahiz kanpo jarduerako esparru guztietan.

6. Kontratazio administratiborako aurreikusitako neurriak.

Euskara eta gaztelania dira EAEn jarduten duten herri administrazioetako hizkuntza ofizialak. Ondorioz, biek dute herri administrazioetan ohikotasunez erabiltzeko hizkuntzak izateko zilegitasuna. Gainera, eta abiapuntu moduan, kontuan hartu behar da azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko legearen arabera herritarrek aitorturik dutela EAEn kokaturiko herri administrazioekin euskaraz nahiz gaztelaniaz jarduteko eskubidea, herri administrazioa behartuta dagoelarik herritarrak hautaturiko hizkuntzan jardutera, bai herritarra



artatzerakoan, bai herritarrak parte hartzen duen espediente eta prozedurak burutzerakoan.

Legeriari begira jarrita, badira hainbaten artean bi erreferentzia Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planen legezko testuingurua finkatzeko baliagarri direnak: epaia bata, eta dekretua bestea.

Alde batetik, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 26ko 82/1986 epaiaren arabera, *“hizkuntza bat ofiziala da, gizartean duen indarra eta pisua gorabehera, herri aginteetan eta herri aginteen artean eta haiek subjektu pribatuekin dituzten harremanetan balio osoz eta ondorio juridiko guztiekin ohikotasunez komunikatzeko tresnatzat aitortzen denean”*. Bidezkoa eta legezkoa da, bada, herri administrazioen eta herritarren artean nahiz herri administrazioen beraien barne-jardunean hala herri administrazioen artean euskara ere lan hizkuntza gisa erabiltzea.

Bestetik, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 1. artikulua arabera, *“EAEen dauden herri administrazioekin euskaraz jarduteko eskubide osoa du herritarrak eta, beraz, eskubide hori bete dadin, herri aginteek, nork bere esparruan, euskara zerbitzu- zein lan-hizkuntza modura normaltasunez erabiltzeko hartu beharreko erabaki guztiak hartuko dituzte”*. Administratuarekin ahozko zein idatzizko harremanak izaten direnean erabiltzen den hizkuntza izango litzateke “zerbitzu hizkuntza”, eta lanpostuari dagozkion zereginak betetzerakoan administratuarekin harremanik izan gabe ere erabiltzen den hizkuntza izango litzateke “lan hizkuntza”.

Aipaturiko “zerbitzu hizkuntza eta lan hizkuntza” gisa erabilia izateko neurri eraginkorrak hartu eta bururatzea da, hortaz, herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planen helburu nagusia.

Helburu horretarantz aurrerapauso esanguratsu eta erabakigarriak eman dira aurreko lau plangintzaldietan. Askotarikoak eta neurri ezberdinetakoak izan dira egindako ahaleginak. Ahaleginik handienak herri-langileen euskara gaitasuna hobetzeko bidean egin dira, hizkuntza eskakizunen sistemaren eskutik. Herri administrazioek egin duten ahaleginari esker eta herri-langileek egiaztatu duten euskara gaitasunaren ikuspegitik, gaur egun posible da herri administrazioetan euskararen erabilera areagotzen jarraitzea eta euskara, zerbitzu hizkuntza gisa ez ezik, lan hizkuntza gisa ere neurriren batean normaltasunez erabiltzen den hizkuntza izatea —batzuetan gehiago, beste batzuetan gutxiago, tokian tokiko errealitate soziolinguistikoaren eta administrazio bakoitzaren hizkuntza errealitatearen arabera—. Ildo horretatik, V. plangintzaldiko planak baliatu beharko lirateke herri administrazioetako langileen euskara gaitasuna hobetzeko egin den eta egin beharko den ahaleginari neurriko etekina ateratzeko, helburu egingarriak, arrazoizkoak eta proportziozkoak planteatuz betiere.



Jakina da, gainera, herritarrei herri administrazioekiko harremanetarako aitorturiko hizkuntza eskubideak beti errespetatu behar dituztela herri aginteei. Hizkuntza eskubideak betetzea izango da, beraz, V. plangintzaldiko planen helburu nagusietarikoa, lan hizkuntza gisa euskararen erabilera era progresiboan areagotzearekin batera.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuari jarraiki, jakina denez, EAEko herri administrazioetako hizkuntza normalizazio prozesua bost urteko plangintzaldien eskutik arautzen da. Lehen plangintzaldia 1990ean jarri zen martxan, eta orain arte lau izan dira. Orain arte egindako bidea sendotu nahi da, eta herri-langileen euskara gaitasuna sendotzeko eta areagotzeko lanarekin jarraituko bada ere, euskararen erabilera areagotzea izango da erronka nagusia. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu euskara zerbitzu hizkuntza gisa erabiliz eta, aldi berean, hizkuntza eskubideak eraginkortasunez bermatzearekin batera euskararen erabilera areagotu euskara ere lan hizkuntza gisa erabiliz: horra datozen bost urteetarako erronka. Ondorioz, euskara gaitasuna egiaztaturik duten herri-langileengan jarri beharko litzateke lan hizkuntzaren plangintzarako begirada nagusia, oinarriko gaitasunik egiaztaturik ez duten langileen euskalduntzea ahaztu gabe.



3. V. plangintzaldirako planetarako irizpide orokorrak

3.1. Eragin-eremua eta epea

86/1997 Dekretuko 2. eta 3. artikuluei jarraiki, ondorengo erakundeek osatzen dute eragin-eremua:

- EAEko Administrazio Orokorra eta beraren erakunde autonomiadunak
- Herri Kontuen Euskal Epaitegia
- Lan Harremanen Kontseilua
- Foru eta toki-administrazioak eta beraien erakunde autonomiadunak
- Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiak
- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazioan eta zerbitzuetan diharduten langileak
- Eusko Legebiltzarraren eta Arartekoaren zerbitzuko langileak

Euskararen erabilera planen iraunaldia 2013ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31 artekoa da, eta planok 2013. urtearen barruan onartu behar dira (ikus apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua).



3.2. Helmuga: euskara ere herri administrazioetako jarduneko ohiko lan hizkuntza

Indarrean dagoen legeria ez ezik, EAEko egoera soziolinguistikoa kontuan harturik, bi hizkuntza ofizialek izan behar dute lekua herri administrazioetako jardunean. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatze aldera, euskara zerbitzu hizkuntza gisa erabiltzea behar da bermatu. Eta euskarari administrazioetan ere bizi-indarra ahalbidetze aldera eta eremu publikoan eta lan munduan euskararen erabilera era progresiboan areagotzen jarraitze aldera, euskara lan hizkuntza gisa erabiltzea behar da bermatu. Aurreko urteetan herri agintek eta herri-langileek egindako ahaleginari esker, jadanik herri administrazioetako % 60 inguruk egiaztatua du hizkuntza eskakizunen bat, eta badu, beraz, gaitasunik zenbait lan euskaraz ere egiteko. Ahal izan arren, ordea, beste zenbait faktoreren eraginez, gaztelania da lan hizkuntza nagusia, eta kasu batzuetan bakarra.

Herri-langile askoren euskara gaitasunak eta jarrerak nahiz herri aginteen jarrerak aukera irekitzen dute bi hizkuntza ofizialak lan hizkuntza gisa erabiltzerakoan bi hizkuntzen arteko gaur egungo desorekatik berdintasunerantz urratsak emateko. Euskara gaitasuna eta hizkuntza eskakizunak euskararen erabilera ahalbidetzeko bitartekoak baino ez dira, helburua betiere, beraz, euskararen erabilera areagotzea delarik. Horretarako behar da planifikatu, helburu egingarriak eta bitarteko eraginkorrak finkatu, eta eragileen arteko adostasuna lortu. Eta EAEko egoera soziolinguistikoa askotarikoa denez, tokian tokiko errealitatera egokituriko plangintza behar da hezurramitu; hori dena gauzatu ahal izateko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aitzindaritzaz jokatu du.

Badira hainbat arrazoi, herri aginteen gogoaz eta ofizialtasunaren ondorioez gain, herri administrazioen eguneroko jardunean, euskararen erabilera gero eta ohikoagoa izan dadin:

- Euskal herri-administrazioak dira mundu zabalean euskara ohikotasunez erabil dezaketen administrazio bakarrak. Bertako herri aginte eta herri-langileen esku dago, beraz, euskarari administrazioetako hizkuntza direnen artean sendotasunez lekua egitea.
- Gizarteari zor zaio herri administrazioa, eta gizarte hau gero eta elebidunagoa da, hori delako gizarte honen borondatea eta erabakia 1979az geroztik. Administrazioari dagokio gizartearen hizkuntza ezaugarrietara egokitu eta gizarteak hautaturiko hizkuntza eredia garatzerakoan eredu garri izatea.
- Legeak bete eta betearaztea da herri administrazioen ezaugarri behinenetakoa.



- Herritarrei aitorturiko hizkuntza eskubideak erosotasunez baliatzeko aukera eman behar zaio herritarrari.
- Herri administrazioek kalitateko zerbitzua eman behar dute, eta komunikazio hizkuntza zuzenean atxikitzen zaio kalitateari.
- Helburu lorgarria da euskararen erabilera zerbitzu hizkuntzaren ikuspegitik ez ezik lan hizkuntzarenetik ere hobetzea, era progresiboan eta malgutasunez, boluntarismorik gabe baina aurrerantz eraginkortasunez, herri-langileen parte hartzea sustatuz eta herri aginteetako kargudun politikoen inplikazioa areagotuz. Herri-langileen eta erakunde-ordezkarien atxikimendua izango da eraginkortasunaren giltzarri nagusia.



3.3. Euskararen erabilera normalizatzeko planetako parte-hartzaileak

Honako hauek dira euskararen erabilera normalizatzeko planetan parte hartuko dutenak:

1. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu behar direnez, 86/1997 Dekretuaren 15, 16 eta 17. artikuluetako xedapenei jarraiki herri administrazio bakoitzak behar besteko neurriak hartu beharko ditu, eta zerbitzu hizkuntzaren ikuspegiak ukitutako herri-langile eta zerbitzuek parte hartuko dute Euskararen Erabilera Planean.

2. Lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data gainditua izanik, hizkuntza eskakizuna bera (edo baxuago bat) egiaztaturik duten herri-langileak.

3. Derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan dihardutenek ere aukera izango dute Planean parte hartzeko euskara gaitasuna egiaztaturik badute, euskararen gaitasuna neurriren batean izatea baita gakoa.

Argitu behar da, planean euskara lan hizkuntza gisa erabiltzeko parte-hartzaile moduan sartuko direnek gutxienez funtzio komunikatiboren bat edo beste betetzeko erabiliko dutela euskara lan hizkuntza gisa. Zein lanpostutan zer funtzio komunikatibok izango duen euskara lan hizkuntza finkatzeko markoa da hain zuzen ere Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana, eta hori guztia planaren barruan zehaztea dagokio herri aginte bakoitzari bere hizkuntza ezaugarrien arabera.



3.4. Hizkuntza eskakizunen sistemaren garapena.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 11.1 artikuluan ageri denez, *“Administrazio bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean derrigor bete beharreko indizeak ezarriko du zein den derrigorrezko eskakizunen portzentajea, alegia, lanpostu-kopuru osoa aintzat hartuta, zenbat lanpostuk izan behar duten izendatuta derrigorrezko hizkuntza eskakizuna”*.

Jakina denez, aipatu dekretuari jarraiki, honakoa da entitate bakoitzak berari dagokion derrigorrezko indizea finkatzeko erabili behar duen formula, entitatearen jardura eremua oinarritzat hartuta:

$$\text{euskaldunak} + (\text{ia euskaldunak}/2)$$

“Ia euskaldunak” izendapenaren baliokide ulertu behar da “elebidun pasibo” izendatzen den herritarren multzoa.

Aipatu indizea plangintzaldi bakoitzean berrikusi behar da, 86/1997 Dekretuko 11.3 artikuluan xedatuari jarraiki:

“Plangintzaldi bakoitzerako indizea finkatzeko, plangintzaldia hasten denerako indarrean dagoen Erroldan edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako azken datuak erabiliko dira, betiere, herri administrazio bakoitzari dagokion jardura esparrua kontuan hartuta”.

V. plangintzaldirako derrigor bete beharreko indizea —berria— EUSTATEk 2006an ofizialki emandako datuetan oinarritu behar da. Hala, EAEko indize berria % 48.46koa izango da, IV. plangintzaldiko indizea (% 43.87) baino % 4.59 handiagoa. Bistan da derrigor bete beharreko indizea handitzeak eragina izan dezakeela euskararen erabileran, 86/1997 Dekretuko 17. artikuluan finkaturiko lau tipologietako helburu mailakatuak betetzea derrigor bete beharreko indizeari zuzenean lotuta baitago. Hainbat izango dira helburu mailakatu batetik besterako jauzia emango duten herri administrazioak, hizkuntza politikaren progresibitatearen ispilu.

Kontuan hartzekoa da, derrigor bete beharreko indizea gutxieneko abiapuntutzat hartu behar dela, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren 549/2011 epaiaren argitan. Epaiak dioenez, *“(el) índice de obligado cumplimiento definido por el artículo 11.1 del Decreto 86/1997 (...) en cuanto que se trata de un módulo que fija los objetivos porcentuales mínimos en cada período del Plan de Normalización y que por lo tanto solo determina con ese carácter el límite del ejercicio de las potestades discrecionales de la Administración...”*.

Herri administrazio asko dira derrigortasun indizetik gora dabiltzanak, eta bakan batzuk, berriz, behera. Azken hauek egoki irizten deritzeten neurriak hartu beharko dituzte derrigor bete beharreko indizera iristeko.



Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea oinarritzat hartuta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, EAEko *“herri administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitza betetzeko eta horretan jarduteko euskaraz beharrezko den gaitasun maila kontuan hartuta erabakiko da lanpostu bakoitzari zein hizkuntza eskakizun dagokion”* (7. art.), eta hizkuntza eskakizun hori egiaztatzea derrigorrezkoa ez denean —alegia, hizkuntza eskakizun derrigortasun datarik gabea duten lanpostuetan— merezimendu gisa baloratu beharko da.

V. plangintzaldirako euskararen erabilera plana egiteko prozesua aukera egokia izango litzateke lanpostuei ezarritako hizkuntza eskakizunak berrikusteko, lanpostuaren eginkizunen eta ezarritako hizkuntza eskakizunaren artean disfuntzioren bat oharteman den kasuetan, ustez beharko litzatekeen baino euskara gaitasun handiagoa edo txikiagoa ezarri dela medio.

Derrigortasun data ezartzeari dagokionez, bada herri administrazio guztietarako baliagarria den irizpide bat, honakoa: kontuan har daitezela, beste zenbait faktoreren artean, V. plangintzaldirako planean lanpostuari eta lanpostua kokatzen den zerbitzu edo administrazio unitateari jarritako hizkuntza helburuak, zerbitzu hizkuntza nahiz lan hizkuntzaren ikuspegitik. Irizpide nagusia beharko luke, beraz, derrigortasun data Erabilera Planaren helburuekin zuzenean lotzea. Izan ere, euskara gaitasuna eta euskararen erabilera elkarri uztartzea da jarraibide nagusia.

Derrigortasun datak ezartzerakoan uztartu beharko lirateke apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan jasotako hiru elementuok: atal elebidun eta euskarazkoen aurreikuspena, hizkuntza ezaugarrien arabera lau helburu mailakatuak eta administrazio atalen sailkapena.

Aipatutako irizpide orokor horiez gain, beste honakook erabiliko dira derrigortasun datak ezartzerakoan:

- Jendaurreko atal eta dotazioak. Beharrezkoa da eginkizun nagusi legez herritarrari zuzeneko arreta ematea duten lanpostuak identifikatzea (86/1997 Dekretuan “jendaurreko” izenez deituak). Jendaurreko lanpostu guztietan derrigortasun data ezartzea bermatu beharko litzateke, herri administrazio bakoitzaren diru eta giza baliabideen eta errealitatearen arabera. Irizpide hau izango litzateke euskara zerbitzu hizkuntza gisa bermatzeko bermerik behinena, eta hizkuntza eskubideak eraginkortasun handiagoz betetzeko bidea. Horretarako, komenigarria izango litzateke herri erakunde guztietan (batez ere, tamaina batetik gorakoetan) jendaurreko lanpostuen mapa osatzea.
- Administrazio atal elebidunak.
- Gizarte izaerako administrazio atalak.



- Izaera orokorreko administrazio atalak.
- Herri administrazioen barruko zeharkako administrazio atalak.
- Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten lanpostuen kopurua % 60tik gorakoa duten administrazio atalak, betiere bertako atalburuak dagokion hizkuntza eskakizuna edo bat baxuagoa egiaztaturik baldin badu.
- V. plangintzaldiaren barruan erretiroa har dezaketen langileek betetako lanpostuak, betiere, ordea, aurreko irizpideak aplikagarri zaizkienean. Etorkizunerako berme moduan proposatzen da irizpide hau, aplikazio orokorrekoa izan dadin.
- Adinagatik salbuetsita dauden langileek betetako lanpostuak, betiere, ordea, aurreko irizpideak aplikagarri zaizkienean. Etorkizunerako berme moduan proposatzen da irizpide hau, aplikazio orokorrekoa izan dadin.
- Hizkuntza eskakizuna derrigortasun datarik gabe duten lanpostu ugari dira hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten titularrek beterik daudenak. Kasu horietan ere, herritarrekiko harremanak direnean lanpostuaren eginkizunen funtsa edo lanpostuak zeharkakoak direnean edo % 60 lanpostutik gora hizkuntza eskakizuna egiaztaturik duten administrazio ataletakoak direnean, derrigortasun data jarriko da. Aurreko bi kasuetan bezala, batez ere etorkizunerako berme moduan proposatzen da irizpide hau.



3.5. Irizpide orokorrak: herri administrazioak, oro har, ESEPen ezarritakoaren arabera

1. Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea

- Herri administrazioek (EAEko administrazio orokorrak, foru aldundiek, udalerriek, osasun zerbitzuek, herrizaingoez, justizia administrazioak, sozietate publikoek eta zuzenbide pribatuko entitate publikoek) hizkuntza kudeaketako planak onartzea eta garatzea.
- Beren lanean euskaraz jarduteko gai diren herri-langileek eta euskaraz jarduteko gai diren herritarrek administrazioekiko harremanetan euskararen erabilera era progresiboan areagotzeko erakunde bakoitzean neurriak hartzea.
- Herritarrek administrazioekin dituzten harreman ahozkoetan eta idatzizkoetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera bermatzea.
- Hizkuntza paisaian (errotulazioa eta noizbehinkako oharak) euskararen erabilera bermatzea:
 - Erakunde barruko hizkuntza paisaian euskararen presentzia gehitzea.
 - Administrazioaren seinaleztapen publikoan eta noizbehinkako oharretan euskararen erabilera handitzea, komunikagarritasuna zainduz.
- Erakundearen agerpen publikoetan euskararen presentzia eta lehenetsia bermatzea.
- Erakundearen ahozko kanpo zein barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzeko neurriak hartzea, betiere herritarren hizkuntza aukera errespetatuz.
- Erakundearen idatzizko kanpo zein barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzea, sortze-lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.
- Herri administrazioetako kargudun publikoek euskararekiko jarrera eraginkorra agertzea, bai herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, baita euskara ere lan hizkuntza izan dadin.

2. Euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea

- Euskara zerbitzu hizkuntza ez ezik lan hizkuntza ere izan dadin bideak jartzea. Dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileen eta, edozeinetara ere, euskara erabiltzeko gai den herri-langile ororen ohiko lan hizkuntza izango da euskara ere neurriren batean, progresiboki handiagoa izango den neurrian. (Neurri hori administrazio bakoitzaren hizkuntza kudeaketako planean zehaztuko da, besteak beste kontuan harturik aipatu planean ezarritako helburuak eta bitartekoak, erakundearen hizkuntza egoera, zerbitzu administratiboaren izaera,



herri-langileen hizkuntza gaitasuna eta jarrera, eta administrazioaren jardura eremuaren ezaugarri soziolinguistikoak; betiere herritarren hizkuntza aukeraren kalterik gabe.)

- Euskara ere ohiko lan hizkuntza izango duten herri-langileei beren lan jardunerako lagungarri zaizkien bitartekoak jartzea.
- Euskara lan hizkuntza moduan finkatzeko hartuko diren oinarri nagusiak lanpostuaren komunikazio funtzioak eta lanpostuko herri-langilearen euskara gaitasuna eta hizkuntza-jarrera izango direnez, herri-langileen euskararen aldeko jarrera, motibazioa eta onarpena sustatzea, horretarako behar den prestakuntza eta laguntza eskainiz.
- Euskaraz jarduteko gai diren herri-langileen hizkuntza erabileretan lehentasunezko arreta jarri, eta “erabilera-helburu” zehatzak (kualitatibo eta kuantitatiboki) jartzea.
- Tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera ziurtatzea eta gehitzea.
- Erakunde barruko sarean, Intranet sarean, euskararen presentzia bermatzea.

3. Langileen euskara gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea

- Hizkuntza eskakizunen egiaztapenak areagotzeko neurriak hartzea.
- Salbuetsitakoen euskararen ezagutza hobetzeko neurriak hartzea.
- Herri administrazioetako kargudun publikoen euskararen ezagutza hobetzeko neurriak hartzea.
- Euskara lan hizkuntza duten langileentzako prestakuntza iraunkorra bultzatzea (prestakuntza orokorra euskaraz nahiz euskara erabiltzeko prestakuntza berezia).
- Legeriak eta kudeaketa planek ezartzen dituzten irizpideez gain, lanpostuei hizkuntza eskakizunak ezartzerakoan bi faktore kontuan hartzea: lanpostuaren beharrezko komunikatibo nagusiak, alde batetik, eta zerbitzu-emaile nahiz zerbitzu-hartzaile diren euskal hiztunen hizkuntza ezaugarriak, bestetik.
- Hizkuntza eskakizunen derrigortasuna zenbat lanpostutan ezarri zehazterakoan administrazioaren jardura eremuaren egoera soziolinguistikoa ardatz nagusi gisa hartzea, kontuan izanik, halaber, administrazioen hizkuntza kudeaketako planetan aurreikusitako helburuak eta administrazio bakoitzaren hizkuntza errealitatea. Legez, lanpostu batzuetan euskara gaitasuna derrigorrezkoa da, eta besteetan, merezimenduzkoa. Euskara gaitasuna egiaztatzea derrigorrezkoa den ala merezimenduzkoa erabakitzean, banaketa hori arrazoibidez eta proportzionaltasunez egingo dela bermatzea.
- 86/1997 Dekretuaren aplikazioan malgutasunez jokatzeko, tokian tokiko egoerei erantzuteko moduan, eta ez muga gisa.



4. Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak finkatzea

- Herri administrazio bakoitzak bere esparrurako *Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak* (HOEI) finkatzea. HOEIak ondorengo arloetan aplikatzekoak izango dira, besteak beste: herritarrekiko ahozko eta idatzizko komunikazioa, administrazio bakoitzeko lan-arlo guztien eta herri-langileen arteko ahozko nahiz idatzizko komunikazioa, administrazioen arteko idatzizko komunikazioa, komunikazio telematikoak, ekitaldi publikoetako hizkuntza erabilera, itzulpengintza, korredakzioa, erregistroa, tresna eta aplikazio informatikoak, internet eta intranet, argitalpenak, iragarpenak eta publizitatea, hizkuntza paisaia, herri-langileen etengabeko prestakuntza profesionala eta euskara gaitasunaren hobekuntza, euskarazko komunikazio idatziaren kalitatea eta komunikagarritasuna, eta kontrataziorako hizkuntza baldintzak.
- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak betetzen direla bermatzea.
- Kontratazio hizkuntza betebeharrak ezartzea eta betetzen direla bermatzea (esleipen prozeduretan baldintza-agirietan jasotzea).
- Elkarte eta enpresei diru-laguntzak ematerakoan edo jarduera publikoetarako baimenak ematerakoan edo udal instalazioen erabileraren lagapena egiterakoan hizkuntza irizpideak ere finkatzea, eta hizkuntza baldintzak betetzen direla bermatzea.
- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzearen kalterik gabe, euskarazko sorkuntzari lehentasuna ematea itzulpenaren bidezko euskararen presentziaren aurretik. Hizkuntza irizpideen baitan dagoen itzulpen politika egoki bat zehaztea (bereziki idazketa elebiduna bultzatuz).
- Itzulpenen eta euskaraz sortzen diren testuen komunikazio kalitatea bermatzea.
- Aurreko guztia betetzen dela bermatzeko, herri administrazio bakoitzak protokolo bat ezarriko du eta ezarpen horren erantzukizuna izango duen organoa izendatu.

5. Administrazioen arteko elkarlana areagotzea

- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzeko, indar berezia egitea herritarren segurtasuna bermatzea helburu duten polizia zerbitzuetan, eta arreta berezia jartzea herritarrekin zuzeneko harremana duten lanpostuetan ahozko komunikazioa euskaraz ere izan dadin.
- Euskararen beste lurraldeetako herri administrazioekin jakintza trukea eta elkarlana garatzea.
- Administrazioen arteko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko adostasunak lortzea herri administrazioen artean.



6. Kanpoko komunikazioan euskararen erabilera areagotzea

- Komunikazio planak garatzea euskara erabiltzeko gai diren herritarrek euskararen hautua egin dezaten lagundu eta sustatzeko.
- Komunikazio instituzionalean eta erakundearen izenean egiten diren jendaurreko jardueretan euskararen erabilera bultzatzea.
- Erakunde-ordezkarien euskararen erabilera ikusarazteko ekimenak bideratzea.
- Argitalpenetan euskararen presentzia gehitzea.
- Web orrietan euskararen presentzia gehitzea, komunikagarritasuna zainduta.
- Iragarki, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia areagotzea, komunikagarritasuna zainduta, eta betiere legeak ezarritako gutxienekoari kalterik egin gabe.
- Hizkuntza paisaiaren zuzentasun eta egokitasuna bermatzea; horretarako, herri administrazio eta erakunde arduradunek berrikusiko dituzte euren eskumenpeko errotuluak eta gainerako seinaleak.



3.6. Irizpide orokorrak: gune geografiko euskaldunenak

Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea.

- Euskara ohiko lan hizkuntza gisa garatzeko herri administrazioetako langileek behar besteko euskara gaitasuna izan dezaten neurri eraginkorrak hartzea.
- Administrazioen arteko harremanetan, gune euskaldunenetako udal langileekin izango dituzten lan harremanak (ahoz zein idatziz) euskaraz izango direla ziurtatzea.
- Udalaz gaindiko administrazioek gune euskaldunenetako herritarrei ematen dieten zerbitzua euskaraz eskaintzea.
- Hizkuntza paisaia oro har euskaraz izateko neurriak hartzea.
- Proiektzio publikoa duten zerbitzuak kontratatzerakoan, elkarre eta enpresei diru-laguntzak ematerakoan, jarduera publikoetarako baimenak ematerakoan edo administrazioaren instalazioen erabileraren lagapena egiterakoan euskararen erabilera egokia bermatzea.
- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak UEMArekin udalerrri horien berariazko hizkuntza ezaugarriei begirako plana diseinatu eta sustatzea.